

INOZ BATZORDEAREN EGOKITZAPEN-PROPOSAMENA, AGINDU HONEKIN LOTUTAKOA: SND/726/2023 AGINDUA, UZTAILAREN 4KOA, ZEINAREN BIDEZ COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIALDIA AMAITU DELA DEKLARATZEN DEN

SND/726/2023 Agindua, uztailaren 4koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia amaitu dela eta ezohiko neurriak –bereziki maskarak nahitaez erabiltzeari buruzkoak– aplikatzeari utzi zaiola deklaratu duena argitaratu denez, INOZ Batzordeak agindu hori Osakidetza osasun-testuingurura egokitzeko proposamena egin du.

Aginduak jasotzen duen bezala, pandemiak eragin handia izan du biztanle zaurgarrienen gaixotze-tasari eta hilkortasunari dagokienez. Horregatik, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia amaitu ondoren, prebentzio- eta kontrol-neurriak, egungo egoerara egokituta, biztanleria horri zuzendu behar zaizkio nagusiki.

Ikasitakoaren artean dugu herritarrek rol garrantzitsua dutela arnas infekzioen transmisioa murrizteko. Horregatik, garrantzitsua da hartutako erantzukizun-kultura horri eustea, eta maskarak erabiltzen jarraitzea, beste higie-neurri batzuekin batera, arnas-infekzioaren sintomak daudenean.

Denok dakigun bezala, zentro sanitarioak zaurgarritasun bereziko eremuak dira. Gogoan izan behar dugu paziente guztien arretan une oro **NEURRI ESTANDARRAK** aplikatu behar direla: Eskuen higie-neurriak; eskularruak, osorik ez dagoen azala ukituz gero; mukosak, fluidoak edo gailu inbaditzaileak erabiltzea; mantala, zipritinak prebenitzeko; maskara kirurgikoa, aerosolak, odol-zipritinak edo gorputz-jariakinak izateko arriskua duten prozeduretan; arnasketa-higie-neurriak.

Maskara honako testuinguru eta egoera hauetan erabiltzea gomendatzen da:

- **PERTSONA SINTOMATIKOA:** Arnas Infekzio Akutuarekin (goiko edo beheko arnasbidekoa) bateragarria den klinika duen pertsona oro **ESPazio PARTEKATUETAN** dagoenean: itxarongelak, kontsulta-eremua...
- **KASU SINTOMATIKOAK ARTATZEN DITUZTEN PROFESIONALAK:**
 - Diagnostiko etiologikorik gabeko arnas sintomatologia duten pazienteak: Maskara kirurgikoa erabiltzea (neurri estandarrak)
 - Diagnostiko etiologikoa duten pazienteek transmisioan oinarritutako arreta-neurriak hartuko dituzte (airekoa, tantak, kontaktua)
- **ZAINKETA KRITIKOEN UNITATEAK:** Profesionalei eta bisitei aplikatuko zaie (ez pazienteei)
 - BIZKOKETA, ZIU, KORONARIOAK, ERREDURA HANDIAK, ZIU PEDIATRIKOA: Pazientei arreta ematean bakarrik, erakunde bakoitzaren egiturara egokituta.
 - JAI OBERRIAK: Eremu asistentzial guztietan (arrisku ertaineko eremuak eta intentsiboak)

- **HERRITAR ZAURGARRIAK:** Profesionalei eta bisitei aplikatuko zaie (ez pazienteei)
 - ONKOLOGIAKO ETA HEMATOLOGIAKO Ospitalizazioa (pediatrikoa eta heldua)
 - Gibelesko eta giltzurrunetako transplanteen ospitalizazio-eremua
 - Aferesi-eremua (TPH)
 - Kontsultak eta arreta-eremua Erradioterapian eta Medikuntza Nuklearrean
 - Onkologiako eta Eguneko Ospitaleko kontsultak (pediatrikoa eta heldua)
 - DIALISI-EREMUA: dialisi-gela komunean
 - Zaurgarritasun bereziko paziente guztiei arreta ematean (immunodeprimituak, paziente hauskorra...)
- **KIRURGIAKO EREMUA:** nahitaezkoa ebakuntza-gelen barruan (pazienteekin edo pazienterik gabe).
- **OSPITALEKO LARRIALDIAK ETA LEHEN MAILAKO LARRIALDIAK (EAG):**
 - Pazienteak, ITXARONGELETAN dauden bisitak
 - Arreta-eremuetan arnasbideetako sintomak dituzten paziente guztiak
 - Triage-eremuan, boxetan, igeltsuetan... dauden pazienteei arreta zuzena ematen dieten profesionalak.

Gomendio horiek agindu berri hori egokitzeke aldi baterako neurri gisa ezartzen dira, eta 15 eguneko epean berrikusi ahal izango dira.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 5a.